

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Euskara Zerbitzua

2023. urtean merkataritza establezimenduetan kanpoko errotulazioa aldatu eta izenetan euskara sartzeko, zein merkataritza eremuan euskararen presentzia eta erabilera sustatzearekin lotutako gastuetarako dirulaguntzak

2023ko apirilaren 5ean egindako ezohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2023. urtean arlo sozioekonomikoan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko dirulaguntza deialdia arautuko duten berariazko oinarriak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuan arautuaren ildotik, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluan eta hurrengoetan eta Vitoria-Gasteizko Udalbatzak 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran hasierako onespina eman zion eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn -5. zenbakia- argitaratu zen Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzeko ordenantzan arautuaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 18an

Alkatetza eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkaria
RAIMUNDO RUIZ DE ESCUDERO EZCURRA

Sarrera

2022ko urriaren 4an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2022ko azaroaren 7ko ALHAOn argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org kontsulta daitezke, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute xehetasunak jakiteko: eskabideak non eta nola aurkeztu, entitate eskatzaileen eskubideak eta betebeharrak, izapidetzea, dokumentazioa nola aurkeztu, instrukzioa eta ebazpena nola egingo den, ebazteko eta jakinarazteko epea, dirulaguntzaren publizitatea, beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna, arau-hausteak eta zigorrak, araudi aplikagarria eta interpretazioa, etab.

1. Dirulaguntzen ildoak

7.3. Merkataritza establezimenduetan kanpoko errotulazioa aldatu eta izenetan euskara sartzeko, zein merkataritza eremuan euskararen presentzia eta erabilera sustatzearekin lotutako gastuetarako dirulaguntzak.

Vitoria-Gasteizko Udalak 2022ko urtarrilaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zuen 2022-2024 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa. Bertan, dirulaguntza deialdi hau jaso da, arlo sozioekonomikoan euskararen presentzia eta erabilera bultzatuko duten ekimenak sustatzeko asmoz.

2. Deialdiaren xedea

Jendaurreko atentzioa duten merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimendu edo entitateetan euskararen presentzia indartzea.

Vitoria-Gasteizko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen alorretan euskararen presentzia sustatzeko eman ahalko dituen laguntza ekonomikoak arautzea eta horiek ematea dute xede oinarri hauek. Honako jarduera hauek diruz lagundu daitezke:

– Jendaurreko egoitza edo establezimenduen kanpo errotulazioan, paperezko materialetan (fakturak, gutun-azalak, poltsak...), seinaleketan edo bestelako materialetan euskara sartzea.

– Web-orriak itzultzea eta egokitzea, euskaraz ere egon daitezen.

– Establezimenduaren hizkuntza egoeraren diagnostikoarekin, ebaluazioarekin edo zertifikazioarekin lotutako gastuak, eskusiboki horretan ari diren entitateek eginak direnean.

3. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honen ildotik ematen diren laguntzak Alkatetza Saileko Euskara Zerbitzuaren 2023ko ekitaldiko aurrekontuetako 0171.3351.48005 partidaren jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira. Gehienez 6.000,00 (sei mila) euro baliatu ahal izango dira horretarako.

4. Aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 22an amaituko da.

5. Onuradunak eta betekizunak

Pertsona fisiko nahiz juridikoen eskuratu ahal izango dituzte oinarri hauetan arautzen diren laguntzak, baldin eta ezaugarri hauek betetzen badituzte: (a) kokalekua Vitoria-Gasteizko udalerrian izatea (b) jarduera ostalaritza, merkataritza edo zerbitzuen alorrekoa izatea, (c) jarduera jendaurrekoa izatea, Vitoria-Gasteizko udalerrian bertan, (d) diruz laguntzen diren lanak 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitarteko epean egindakoak izatea.

Laguntza hauek merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen alorretara bideratuak daude. Azken honen baitan, sektoreko enpresez gain, egitura enpresarialik ez duten baina pertsona eta kolektiboak zuzendutako zerbitzu eskaintza duten beste era bateko entitateak (elkarteak, fundazioak...) ere barne hartuko dira. Baldintza gisa, entitate hauek jendaurreko arreta eskaintzen duen lokala izan beharko lukete.

Erabilitako testuek zuzenak izan beharko dute, ortografia akatsik gabeak. Bestela ez da diru-laguntzarik emango. Testuari buruzko zalantzarik izanez gero, interesdunek Euskara Zerbitzuan kontsulta dezakete edo udalak eskaintzen dituen itzulpen-zerbitzuak erabili.

Erakunde berak ezingo du eskabide bat baino gehiago aurkeztu deialdi bakoitzeko. Onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte:

– 50 langile baino gehiago ez izatea.

– Urteko negozio-bolumenak edo balantze orokorrak 10 milioi euro ez gainditzea.

– Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25eko edo hortik gorako partaidetza zuzena nahiz zeharkakoa ez izatea bertan.

– Administrazio publikoen aurreko zerga-betebeharrak egunean edukitzea, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere.

– Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak edo lanbide jarduerak burutzen dituztenak ere (elkarteak, lanbide elkargoak, etab.).

– Onuraduna ezingo da egon Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera horrelakorik jasotzea galarazten duen egoeraren batean.

6. Dirulaguntzen zenbatekoa

Udalak proiektuaren kostuaren ehuneko 50era arteko dirulaguntza emango du lehen bi ataletan (gehienez ere 600,00 euro) eta ehuneko 75era artekoa hirugarrenean (gehienez ere 450,00 euro).

Diruz lagundutako jarduerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta zehaztutako epearen barruan egindakoak joko dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat. Horiei dagokienez, eroste kostuak ezingo du inolaz ere merkatuko baliotik gorakoa izan.

7. Konkurrentzia-erregimena

Hainbanaketa: dirulaguntza emateko, zuzkiduraren zenbatekoa (6.000,00 euro) onartutako eskabide guztien artean banatuko da, egindako gastuaren zenbatekoaren eta diruz lagun daitekeen ehunekoaren arabera (ehuneko 50 webgunea egokitzeko edo euskara errotulazioan, papertegian eta abarretan sartzeko, 600,00 euroko mugarekin; eta ehuneko 75 ebaluazio lanetarako, 450,00 euroko mugarekin).

8. Beste dirulaguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna

Deialdi-oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –dela Estatuko, dela Europar Batasuneko, dela nazioarteko– emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo ba-liabideekin, gainfinantziatorik gertatzen ez den bitartean. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienezko mugaraino.

Deialdi honetara aurkeztutako ekintzak garatzeko bestelako dirulaguntzarik eskatu eta lortu duten elkarteek beren eskaeran adierazi beharko dute zein erakunde edo administrazioari eskatu dioten eta zenbat eskuratu duten (erakunde horiek pribatuak zein publikoak izan, estatukoak nahiz atzerrikoak).

9. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Vitoria-Gasteizko Udalarik dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria (ez ahaztu baimenak atalean dagokiona markatzea).

2. I. Eranskina.

3. Eskatzailea pertsona fisikoa bada, nortasun-agiriaren fotokopia; eskatzailea pertsona juridikoa bada, Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia, eta eskabidea egiten duen pertsonaren nortasun-agiria eta ordezkatzeko-ahalmena (fotokopiak).

4. Proiektua gauzatu dela ziurtatzen duten frogak dokumentalak: materialen argazkiak, Web orrien kapturak...

5. Egindako gastuen jatorrizko fakturak. Fakturak 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean egindakoa izan beharko du.

6. Fakturen ordainagiriak. Ordainketa 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean egindakoa izan beharko da.

Udalak ofizioz begiratu du enpresak udalarekin zorrik ez duela, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoela, hala badagokio, eta –eskatzaileak horretarako baimena ematen badio atal honetako 1. puntuko dokumentuan– Segurantzaren Sozialesan eta Ogasunean ere ordainketak eginak dituela. Azken bi konprobazio hauek ofizioz egiteko baimenik ematen ez bada, eskatzaileak Segurantzaren Sozialesan eta Ogasunean ordainketak eginak dituela egiaztatu beharko du dagokion dokumentazioaren bitartez.

10. Izapidetzea, eskabideak ebaztea eta dirulaguntza ordaintzea

Eskaerak jaso eta izapidetzeko onartu ondoren, kasu bakoitzean bete beharreko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, balorazio-txosten teknikoak eta ebazpen-proposamena egingo dira.

Instrukzio-organoa Euskara Zerbitzuko udal-langileek osatuko dute, eta ofizioz egingo dituzte eskatutako dirulaguntzen ebazpen-proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze jarduketa guztiak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, batzorde bat eratuko da (kide kopuru bakoitiduna), Euskara Zerbitzuko teknikariek osatua. Batzorde horrek ebazpen-proposamena helaraziko dio organo eskudunari.

Tokiko Gobernu Batzarrak Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten du dirulaguntza hauek emateko eskumena.

Euskara Zerbitzuaren ardura duen zinegotzi ordezkariak deialdia ebazten duelarik, dirulaguntza osorik ordainduko da.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

SUBV_001

Gasteizko Udalarri diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria
Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

ESKATZAILEA – PERSONA SOLICITANTE

1. abizena Apellido 1		2. abizena Apellido 2		NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF	
Izena / Enpresaren izena Nombre / Razón social					

ADMINISTRAZIOAREN AURREKO ORDEZKARIA – PERSONA REPRESENTANTE ANTE LA ADMINISTRACIÓN

1. abizena Apellido 1		2. abizena Apellido 2		NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF	
Izena / Enpresaren izena Nombre / Razón social					

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK - DATOS PARA ENVÍO DE NOTIFICACIONES

Eskatzailea – Persona solicitante Ordezkarria – Representante

Kalea Calle		Zenbakia Número		Letra Letra		Eskailera Escalera	
Solairua Piso	Atea Mano	Posta-kodea Cód. Postal		Herria Población			
Udalerría Municipio			Lurraldea Provincia				
1. Telefon. Teléfono 1	2. Telefon. Teléfono 2			Posta elektronikoa Correo Electrónico			

Komunikazioa-jakinazpena honela jaso nahi dut:
Deseo recibir la comunicación-notificación por / en:

Posta – Correo postal Jakinarazpen elektronikoa – Notificación electrónica

ESKATZAILEAREN BANKETXEKO DATUAK - DATOS BANCARIA DE LA PERSONA SOLICITANTE

Finantza-erakundea – Entidad Financiera	IBAN	F.E.Kodea Código E.F.	Bulegoa Sucursal	KZ - DC	Kontu-zenbakia - Número de Cuenta

LAGUNTZA EKONOMIKO EDO DIRU-LAGUNTZA, ALOR HONETAN – AYUDA ECONÓMICA, SUBVENCIÓN DE:

<input type="checkbox"/> Gazteria - Juventud	<input type="checkbox"/> Kirola - Deporte
<input type="checkbox"/> Berdintasuna - Igualdad	<input type="checkbox"/> Gizarte Politikak – Políticas Sociales
<input type="checkbox"/> Garapenean Laguntzea – Cooperación al desarrollo	<input type="checkbox"/> Herritarren Partaidetza – Participación Ciudadana
<input type="checkbox"/> Euskara - Euskera	<input type="checkbox"/> Merkataritza / Ostalaritza – Comercio / Hostelería
<input type="checkbox"/> Bizikidetzeta eta aniztasuan - Convivencia y Diversidad	<input type="checkbox"/> Enpresak – Empresas
<input type="checkbox"/> Kultura - Cultura	<input type="checkbox"/> Enplegua / Kontratazioa – Empleo / Contratación
<input type="checkbox"/> Hezkuntza - Educación	<input type="checkbox"/> Nekazaritza Eremua – Zona Rural

DIRU-LAGUNTZEN ILDO HONEN BARRUAN: – CORRESPONDIENTE A LA LÍNEA DE SUBVENCIÓN DE:

--

ESKATUTAKO DIRU KOPURUA – IMPORTE SOLICITADO

--

BERE ERANTZUKIZUNPEAN HAU AITORTZEN DU – DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD

- Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak emateko udal programaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oi-narrietan ezarritako irizpideak, eta bete egingo dituela.
Conocer, aceptar y cumplir los criterios fijados en las bases de la convocatoria a la que se presenta dentro del Programa Municipal de Ayudas Económicas y Subvenciones.
- Ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrak betetzen dituela.
Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social y demás circunstancias derivadas del artículo 13.2 de la Ley general de Subvenciones.

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 17/2/2021



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

SUBV_001

Gasteizko Udalarri diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria
Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

GASTEIZKO UDALARI BAIMENA EMATEN DIO – AUTORIZA AL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ (*)

(*) "X" batez adierazi dagokiona - Marque con una "X" lo que proceda

- Konkurrentziatik eratorritako komunikazio ofizialak posta elektronikoz jasotzeko, Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera.
Recibir las comunicaciones oficiales por correo electrónico, derivadas de su concurrencia, conforme a la Ley PAC 39/2015, artículos 40 y 41.
- Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak ordainduak direla egiaztatzen duen ziurtagiria ofizios eskatzeko.
Solicitar de oficio el certificado de estar al corriente de pago en las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duten ziurtagiriak ofizios eskatzeko.
Solicitar de oficio los certificados de estar al corriente de pago con la Tesorería de la Seguridad Social.
- Baimen horiek **UKATUZ** gero, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekikoak beteak dituzuela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzu eskaera honekin batera.
En caso de DENEGAR estas autorizaciones, deberá presentar los certificados acreditativos de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social junto con esta Solicitud.

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de
Izenpea – Firma

(*)

Inprimakia sinatu aurretik, irakur ezazu datuen babesari buruzko informazioa dagoen hurrengo orrialdean.

Antes de firmar el formulario, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 17/2/2021



www.vitoria-gasteiz.org

SUBV_001

Gasteizko Udalarri diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria
Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK- CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrita. <i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza, DBAOKo 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Destinatarios</i>	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei. <i>Los datos personales no serán cedidos a terceros.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, ar-txibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutako aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se reca-baron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 17/2/2021


Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetako sektorean euskararen presentzia sustatzeko dirulaguntzak emateko programaren deialdia. 2023

Convocatoria de subvenciones a proyectos para la promoción de la presencia del euskara en el comercio, hostelería y sector servicios. 2023

www.vitoria-gasteiz.org

Euskara Zerbitzua -Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saila
Servicio de Euskera- Departamento de Alcaldía y Relaciones Institucionales

Tel.: 945 161588

I. ERANSKINA / ANEXO I

1	Eskatzailea / Solicitante	
2	ESKAERA / SOLICITUD	
<input type="checkbox"/>	Errotuluaren, papertegia, bestelako materialak. <i>Rótulo, papelería u otros materiales.</i>	<input type="checkbox"/> Web orria itzuli <i>Traducción página web</i>
		<input type="checkbox"/> Kanpo ebaluazioa egin <i>Evaluación externa</i>
3	ADOSTASUNA / CONFORMIDAD	
<p>Eskatzaileak hau aitortzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituela. - Eskatzailea lokalaren jabea dela edo alokairuan duela. <p><input type="checkbox"/> Jabea da <input type="checkbox"/> Alokairuan du</p> <p>Beste erakunde batean helburu bererako dirulaguntzarik eskatu(ko) al du?</p> <p><input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Bai. <input type="checkbox"/> Non? <input type="checkbox"/> Zenbat?</p> <p>Eskabiderik eginez gero, eskatzaileak horren berri emateko konpromisoa hartzen du.</p> <p style="text-align: center;">Lekua eta data <i>Lugar y fecha</i></p>		<p>Declaro</p> <ul style="list-style-type: none"> - Que cumple los requisitos para tomar parte en esta convocatoria. - Que es propietaria del local dónde esta ubicada la empresa o que lo tiene en alquiler. <p><input type="checkbox"/> Es propietaria. <input type="checkbox"/> Lo tiene en alquiler</p> <p>¿Ha realizado solicitud de subvención ante otro organismo público o privado para este mismo fin?</p> <p><input type="checkbox"/> No <input type="checkbox"/> Sí. Entidad Cantidad:</p> <p>En el caso realizar solicitud posterior, se comprometo a informar de ello a este departamento.</p> <p style="text-align: center;">Zigilua <i>Sello</i></p>
		Izenpea <i>Firma</i>
4	DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN	
<p>1. Gasteizko Udalarir dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria.</p> <p>2. I. Eranskina. *Dokumentu hau</p> <p>3. Eskatzailea pertsona fisikoa bada, nortasun-agiriaren fotokopia; eskatzailea pertsona juridikoa bada, Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia, eta eskabidea egiten duen pertsonaren nortasun-agiria eta ordezkatzee-ahalmena (fotokopiak).</p> <p>4. Proiektua gauzatu dela ziurtatzen duten froga dokumentalak: materialen argazkiak, Web orrien kapturak...</p> <p>5. Egindako gastuen jatorrizko fakturak. Fakturak 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean egindakoa izan beharko du.</p> <p>6. Fakturen ordainagiriak. Ordainketa 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean egindakoa izan beharko da.</p>	<p>1. Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.</p> <p>2. Anexo I. *Presente documento</p> <p>3. Fotocopia del documento nacional de identidad en el supuesto de que el o la solicitante sea una persona física, o en el caso de personas jurídicas: copia de la tarjeta de identificación fiscal, junto con el documento nacional de identidad y poderes de representación de la persona solicitante (fotocopia).</p> <p>4. Pruebas documentales de que el proyecto se ha llevado a cabo: fotografías de los materiales, capturas de pantalla de la página web, etc.</p> <p>5. Facturas originales de los gastos realizados. Las facturas deberán haber sido emitidas en el periodo comprendido entre 1 de septiembre de 2022 y 31 de agosto de 2023.</p> <p>6. Justificantes de pago de las facturas. Los abonos deberán ser efectuados en el periodo comprendido entre 1 de septiembre de 2022 y 31 de agosto de 2023.</p>	

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES	
Tratamenduaren arduraduna	
<i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak	
<i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – información@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak	
<i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak	Udal zerbitzuei dagokien herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrira
<i>Finalidad del tratamiento</i>	<i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oianarri juridikoa	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOko 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
<i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	<i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos</i>
Hartzaileak	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei
<i>Destinatarios</i>	<i>Los datos personales no serán cedidos a terceros</i>
Gordetzeko epea	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.
<i>Plazo de conservación</i>	<i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación</i>
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu
<i>Derechos de las personas</i>	<i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través del Delegado/a de Protección de Datos.</i>